



**24 aste geroago** zikloarekin Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteak duela 25 urte abiarazi zuen ibilbidean eskaini dituen film esanguratsuenetako batzuk berrikusi nahi izan ditu aurten urtemuga seinlatu hau ospatzeko.

Filmazpitek urteurrenarekin bat egin du eta atzera begirako ziklo horretan emandako zortzi film labur jaso ditu fantasiako zinematik azken urteotan sortutako benetako bitxiak ezagutara emateko edo, kasuak kasu, gogora ekartzeko.

---

### **KITCHEN SINK.** Alison Maclean



Emakume bat sukaldeko harraska garbitzen ari da beldur modernoaren film klasiko eta "lynchtar" honetan. Erabat garbi dagoela irizita, ordea, ilea dirudien zer edo zer ageri dela antzemango du. Ateratzen saiatuko da. Eta tiratu egingo du, eta berriz tiratu egingo du, eta berriz ere. Baina sekula amaitzen ez dela dirudi.

ZEELANDA BERRIA. 1989  
JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA  
IRAUPENA: 14 MIN

### **SURPRISE!** Veit Helmer



Veit Helmer alemanaren seigarren filme laburra da eta ongi frogatzen du, zuri beltzeko filme isil eta eskuz zehatz eta gaisotzeko moduan margotua den heinean, errealitateak buelta asko dituela, ezer ez dela dirudien bezalakoa.

ALEMANIA. 1995  
JATORRIZKO HIZKUNTZA: ALEMANA  
IRAUPENA: 6 MIN

### **GEORGE LUCAS IN LOVE.** Joe Nussbaum



Hasieran, film honen arabera, George Lucas blokeatuta zegoen erabat bere gidoi galaktikoarekin, bere graduaziokoa ere bazena. Orduan Bera azaldu zen, printzesa. Eta maitemindu egin ziren. Eta hura desblokeatu egin zen.

AEB. 1999  
JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA  
IRAUPENA: 10 MIN

### **STAPLERFAHRER KLAUS.** Jörg Wagner, Stefan Prehn



Biltegi bateko zama-lanetarako "zezena" gidatzen duen langile baten lehen laneguna mutilazioz eta odolez ondutako orgia batean amaituko da. Guztia ere, laneko segurtasunari buruzko garrantzi handiko aholkuek hornituta (eta, zergatik ez esan, zipristinduta).

ALEMANIA. 2001  
JATORRIZKO HIZKUNTZA: ALEMANA  
IRAUPENA: 10 MIN

**RARE EXPORTS INC.** Jalmari Helander



1793az geroztik onenak. Zalantzarik gabe sektoreko enpresa liderra. Urteetako esperientzia. Haiek bezain hoberik ez da iparraldeko lur barkartuetan egoera basatian bizi diren izaki bitxi horiek atzemateko. Eta ondoren dator zailena: heztea.

FINLANDIA. 2003  
JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA, FINLANDIERA  
IRAUPENA: 8 MIN

**OH MY GOD!** John E. Bryant



Ingeleseko film laburren historian inoiz ez dugu lan bakar batean hain bestetan entzungo film honi izena eman dion esamoldea. Sundancen eta Clermont-Ferranden aurkeztutako film laburra, oso adeigabea eta, zalantzarik gabe, oso barregarria. Gizon bat etxera iritsi da eta bertan topatzen duen giroa ikusita hauxe bakarrik esan dezake: "Oh My God".

AEB. 2004  
JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA  
IRAUPENA: 9 MIN

**NEXT FLOOR.** Denis Villeneuve



Oturuntza oparoa. Hautsez betetako jantoki soila. Hamaika gonbidatuk geruz eta antsietate handiagoz mota guztietako haragiak irensten dituzte. Espezie guztietako animaliak irteten dira sukaldetik, txingarretan erretako azpizunaren, saltxitxen, labeen erretako orein edo basurdeen hanken, bihotzen eta saltsan aurkeztutako garun eta gibelen orgian.

KANADA. 2008  
JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA  
IRAUPENA: 11 MIN

**THE CENTRIFUGE BRAIN PROJECT.** Till Nowak



Centrifuge Brain Project 70eko hamarkadan sortu zen. Jolas-parkeek haurren ikasteko gaitasunean zuten eragina aztertu zuten beste ikertzaileen lanetan oinarrituta, Floridako ICR (Institute for Centrifugal Research) institutuak azterketa hura zabaldu nahi du, atrakzioek helduen garun-gaitasunean eragin positiboa ote duten jakiteko.

ALEMANIA. 2011  
JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA  
IRAUPENA: 6 MIN